# MIELO, MIELO, MIELOTXIN INAUTERIETAN DANTZAN ETA TXIN – TXIN.[1]

[1] Urtxintxa argitaletxetik.

INAUTERI EGUNA DA

ETA MOZORROTUTA NOA

UNTXIZ, EDURNEZURIZ

BEGIBAKAR PIRATAZ.

INAUTERI EGUNA DA.
ZATOZ DANTZARA! [2]

[2] Zubia – Santillana argitaletxetik

INAUTERIAK IRITSI DIRA
BAITA OTSAILA ERE.
EZ DUT MOZORRORIK
EZ TXANORIK BATERE.
ATZERA ETA AURRERA,
BEHERA ETA GORA.
MOZORROA EGIN DUT
ETA FESTARA NOA. [3]

3 Zubia – Santillana argitaletxetik.

INAUTERIAK HELDU DIRA

ETA MOZORROTU EGINGO NAIZ.

AMAK IKUSITAKOAN

EZ NAU EZAGUTUKO.

ORDUAN,

ESANGO DIOT BELARRIRA

AMA, ZURE SEMEA/ALABA NAIZ,

BEGIRA! [4]

[4] *Fantasia* Aizkorri argitaletxetik.
Oharra: “zure seme/alaba” esan beharrean, haurrak bere izena esan dezake.
Beste gaia: FAMILIA

# ZIRIPOT DANTZAN

# JOALDUNA PLAZAN,

# HAU EGIA BAZAN

# SAR DADILA

# KALABAZAN. [5]

[5] *Eskolaurreko Euskararen Programakuntza* liburutik.